

10 MUGI BONUEN ZOKKETA | #MUGIZINEMALDIAN

LEHENDABIZIKOA.

Zokketa honetan parte hartzeko, Mugi Txartela-ren Instagram sare sozial-eko kontu ofiziala (<https://www.instagram.com/mugitxartela/>). Bestalde, irailaren 20an Mugi Txartelaren kontu ofizialean egindako argitalpenari like eman beharko diote, Okendo Kaleko 14. zenbakian dagoen Mugiren standean ateratako argazki bat storie-etara igo beharko dute, Mugi Txartela @mugitxartela kontu ofiziala aipatuz eta #Mugizinemaldian hashtag-a erabiliz.

BIGARRENA.

Zokketa lehendabiziko puntuan aipatutako baldintza guztiak betetzen dituzten parte-hartzaileen artean egingo da. Irabazleak ez badira Mugi Txartelarekin 72 orduan harremanetan jartzen, zokketa berri bat egingo da zokketatutako 10 bonuak banatzeko.

HIRUGARRENA.

Parte hartzeko epea 2024ko irailaren 20an hasi eta irailaren 28an amaituko da, 23: 59an. Irabazleen izenak irailaren 30ean, astelehenean, argitaratuko dira Instagrameko kontu ofizialeko istorioetan, eta Instagrameko mezu pribatuaren bidez jarriko da harremanetan.

LAUGARRENA.

Sariak:

- Guztira 10 Mugi bonu banatuko dira, bakoitza 50 €-tan baloratuta.
 - **Saria aktibo dauden Mugi txartel pertsonalizatuetan bakarrik sartuko da. Txartel pertsonalizatu bat ez badu edo iraungita badago, saridunak txartel berri bat egin beharko du eta/edo txartela berritu saria jaso ahal izateko.**
 - Instagrameko kontu saridunen atzean dauden pertsonak izango dira Mugi txartel pertsonalizatuan diru-sarrerara jasoko dutenak.
 - Bonu horiek intransferigarriak dira, eta ezin dira laga.
 - **Saria jaso ahal izateko zokketan zortedunak info@mugi.eus helbidera idatzi beharko du datu hauek emanez: Izena, bi abizen eta Mugi txartelaren identifikazio-zenbaki pertsonalizatua, "Gaia" atalean, OSO GARRANTZITSUA, kontzeptu hau adieraziz: #MUGIZINEMALDIAN ZOKKETA edo SORTEO #MUGIZINEMALDIAN.**

BOSTGARRENA.

Mugi Txartelak berea du partaidetzatik inor salbuesteko eskubidea, baldin eta iritziko balio delako pertsona horrek iruzurrez edo laidoz diharduela beste parte-hartzaileen kontra.

SEIGARRENA.

Mugi Txartelak oinarri hauetan jaso gabeko egoerak ebatzi ahal izango ditu, baita interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak ere.

ZAZPIGARRENA.

Zozketa Mugi Txartelak antolatu du eta bertan ez du parte hartzen eta ez du erantzukizunik INSTAGRAM. INCek.

ZORTZIGARRENA.

Zure datu pertsonalak kudeatzeko erantzukizuna duen enpresa Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza da, Donostian egoitza duelarik eta Q2000559A identifikazio zenbakiarekin. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak zure pribatutasuna eta datu pertsonalen babesari garrantzi handia ematen dio. Hori dela eta, zure informazio pertsonala arreta handiz tratatzen da eta seguru mantenduko da.

Datuak babesteko araudiak dioenaren arabera, zehazki, 2016/679 (EB) Arautegian, 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentu eta Kontseiluko pertsona fisikoen datu pertsonalen babesaren inguruan zehazten denaren arabera, datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio libreakin dagokionez, parte hartzaile bakoitzak Lege Oinarri hauek onartuta, lehiaketa honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren fitxategi batean sartzeko baimena ematen du lehiaketan parte hartzea kudeatzeko eta irabazleei jakinarazteko.

Parte-hartzaileek eskubidea dute (i) beraien datu pertsonaletara sartzeko, baita (ii) zehaztasunik gabeko datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, (iii) datuen tratamendua mugatzeko, (iv) datuen tratamendua ezeztatzeko eta (v) haiek mugitzeko.

Parte-hartzaileak, Kontrol Agintaritza baten aurrean erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango du, ohiko bizilekua edo ustezko arau-haustea gertatu den lekuan, datu pertsonalen tratamendua egokia izan ez dela pentsatzen bada, baita eskubideak betetzen ez direla uste bada ere.

BEDERATZIGARRENA.

Mugi Txartelak, Instagram-en Pribatutasun Politika arretaz irakurri dezan gomendatzen dio



parte-hartzaileari, ondorengo estekan aurki daitekeena:

Instagram: <https://help.instagram.com/155833707900388>

HAMARGARRENA.

Mugi Txartelak oinarri hauek aldatu edo zabaltzeko eskubidea izango du parte-hartzaileen eskubideak kaltetzen ez dituen bitartean.

HAMAIKAGARRENA.

Lege-oinarri hauek Espainiako legediaren arabera arautuko dira. Donostiako Epaitegi eta Auzitegiak izango dute oinarri hauen indarraldiaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sor daitekeen edozein erreklamazio edo gatazka ebazteko eskumena.

HAMABIGARRENA.

Zozketa honetan parte hartzeak oinarriok erabat onartzea esan nahi du.

